

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Iturmendiko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko berria finantzatuko du

Eraikin berriak 410.000 euroko kostua izango du, eta 27 ikasle hartuko ditu

Martes, 13 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak Iturmendiko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko berria finantzatuko du. 410.000 euroko kostua izango du eta udalerrri horretako 27 ikasle eta irakasle hartuko ditu; izan ere, lehengo ikastetxea zaharkituta geratu zaie. Hala jasota geratu da José Iribas Hezkuntzako kontseilariak eta Nicolás Arbizu Iturmendiko alkateak sinatu duten lankidetzeta-hitzarmenean, [iragan abuztuaren 31ko gobernu-bilkuran onetsi zena](#).



Iribas kontseilaria eta Arbizu, hitzarmena sinatzen.

Nafarroa 2012 Planaren barnean dagoen obrak, Haur eta Lehen Hezkuntzako hiru unitaterako lekua duen eraikin berri bat jasotzen du, eta 3.884 metro koadro duen udal-jabetzako lursail batean kokatuko da.

Proiektuak ondorengo espazioak hartzen ditu: ohiko hiru ikasgela (40 m²), erabilera anitzeko ikasgela bat (60 m²), ikasleentzako bi komun (15 m²) eta irakasleentzako beste bat (5 m²), garbiketako gela bat (2 m²), zuzendaritzako bulego bat (20 m²), instalazio-gela bat (10 m²) eta estalitako karrerape bat (60 m²).

Hitzarmen horretatik ere ondorioztatzen da Iturmendiko Udala arduratuko dela eraikuntzako proiektu honen esleipenerako espedienteak izapidetzeaz, eta baita hura idazteaz, obren zuzendaritza teknikoaz eta egikaritzeaz; Nafarroako Gobernuak, berriz, udalaren teknikariek koordinatuz, obrak ikuskatuko ditu.